

## KONTAKETAREN ERRITMOAN: JOLASEAN ELKARREKIN

### **PERFORMANCEAREN AURREKO PRESTAKETA LANA**

Jolasteko, alde batetik, hartu behar dut kontuan jolaslekua; eta, bestetik, partaideak. Jolaslekua izango da Mintzolako aretoa, ezagutzen dudana; partaideak, berriz: ipuinak, entzuleak eta ni neu. Horiek denak kontuan eduki beharko ditut *kontaketaren erritmoan: jolasean elkarrekin* deritzan *performancea* egiteko.

Honek guztiak eskatuko dit inprobisatzea. Horregatik, aldez aurretik, saiatu naiz bereizten zein izango den *performancearen* atal gogorra (hezurdura) eta zein biguna (haragia); edota, beste metafora erabilia: zein alderdi finkoa, eta zein mugikorra; edota, txalapartarien similaz baliaturik: zein *ttakuna* eta zein *herrena*. Izan ere, ondo inprobisatzeko, bi aldeak gogoan edukitzea ezinbesteko zait. Inprobisazioak bere arauak ditu eta baldin eta ondo inprobisatu nahi badut, ezinbestez, aldez aurretik, alderdi batzuk ondo finkatuak eraman beharko ditut saiora. Zeren, inprobisazioa, beti, ordenaren gainean eraikitzen baita, hau da, koordenada zehatz batzuetan. *Performance* honetan, hain zuzen, ipuinen koordenadatan eraiki beharko da. Beraz, liburu andana bat aukeratzen saiatu naiz, ondo ezagutzen ditudanak (haur liburuak, zehazkiago esateko), zeinak erabili beharko ditudan jostailuak izango balira bezala, era jolasgarrian. Horiek guztiek osatuko dute *performancearen* bizkardura. Haragia, berriz, saioaren momentuan erabaki beharko: espazioari lotutakoak, jendeak proposatuko dizkidanak, bertako objektuak, hotsak... Badakit, gainera, Juan Kruz Igerabide eta Jaime Altuna mintzatuko direla jolasaz, nire *performancearen* aurretik, eta, noski, euren proposamenak ere kontuan hartu beharko ditut. Oraindik ez dakit zer esango duten, baina, pentsatu dut arreta jarri beharko diedala euren jardunei, eta proposatzen dituzten jolasak kontuan eduki, gero txerta ditzadan ipuinetan.

Gauzak honela, beraz, jakin beharko dut *performancea* artikulatzen, oraindik ez dakidana nola. Amildegia enigmatikoa da momentua, eta baldin eta

amildegiaren hatzaparretan erori nahi ez badut, entzuleengan jarri beharko dut konfiantza osoa. Eurak izango dira nire babesleku, eta eurek eskainiko didate sarea, amildegian ez nadin amildu. Hori da, behinik behin, nire ustea. Ustea ez ezik, erronka ere bai.

### **PERFORMANACEA BAINO ORDU ERDI LEHENAGO**

*Performancea* egin baino lehenago, entzuten aritu naiz Juan Kruz Igerabideren zein Jaime Altunaren jardunak, eta hartu ditut, hartu apunteak. Iruditu zait eurek proposatutako jolas batzuk txertatuko ditudala nire *performancean*. Bai, horixe! Haiek entzuten ari naizela, gainera, ideia bi bururatu zaizkit: bat, entzuleak partaide bihurtzea *performancean*; eta bi, Jaimek erakutsitako objektu bat edo beste erabiltzea (Jaimerekin hitz egin beharko dut horretarako).

### **PERFORMANCEA BAINO HAMAR MINUTU LEHENAGO**

Probestuz jardunen arteko atsedenaldea, utzi ditut ordenatuak irudi-liburu batzuk aretoko mahai gainean, objektu batzuekin batera, saiorako prest; Jaimek erabilitako objektu bat edo beste ere bai. Oraindik, ez dakit erabiliko ote ditudan, baina, badaezpada ere, mahaiaren gainean laga ditut.

Hamar minutu falta dira saiorako eta bakarrik egon nahi dut. Hortaz, alboko gelara joan naiz. Ez dakit nondik has naitekeen *performancea*, eta urduri nago. Tentsioa sumatzen dut gorputzean. Arazo larria daukat. Ez dakit benetan nondik has naitekeen. Arnasa hartu eta kantatzen hasi naiz nire santzarekin (musika tresna txikiarekin). Eta, bat- batean, asmatu dut erritmo bat, doinua zein letra, minutu batzuk lehenago Jaimek erabilitako jolas batean oinarrituta. Eta, derrepentean, argibidea! Sumatu dut gorputzean nondik has naitekeen *performancea*. Zirrara baten modukoa izan da. Eureka! Eta lasaitu egin naiz, erabat lasaitu ere. Eta kantatzen hasi, eta dantzatzen erritmoan. Jada, dena erritmo naiz. Segundo batzuk baino ez dira falta hasteko *performancea*.

### **PERFORMANCEAREN SAIOA.**

Aurkezleak ni aurkeztu orduko, esku artean hartu santza (musika tresna txikia) eta kantatzen hasi naiz. Bat-batean, jende guztia dantzarazten eta abesten jarrarazi dut. Jada, izugarrizko konfiantza sumatu dut.

Eta jolasten jarraitu dut nire bizipen batzuekin. Bizipenak pixka bat dramatikoak dira, eta serio jarri naiz, isiltasunera eramanez momentua, kontuak lagun, emozioekin jolastuz.

Ondoren erabaki dut erregistroa aldatzea. Eta nola jendearekin bat egina nagoen, sentitu dut kontatu behar dudala ipuin bat, entzuleen izenekin jolastuz.

Txantxetarako ere denbora hartu, eta asmatu dugu ipuin bat elkarrekin, erritmoa galdu gabe, ipuin ezagun baten egitura erabilia, entzule baten sagarra ere protagonista bihurtu dugularik.

Eta erritmoari eutsita, kontatu dut beste ipuina. Jendea zentratzeko erabili dut Jaimek utzitakoa panpinatxoa. Panpina mugimenduan jarrarazi eta kontaktaren erritmoan sartuta, giro hipnotizagarria sortu da. Baliagarri batzuk erabili ditut jolaserako: errepikapena (jendea guztiak parte hartu dezan), ipuinaren egoera dramatikoak, isiltasuna, eta aretoko hotsak, denak ipuinaren barruan sartu ditugularik, hari narratiboa galdu gabe.

Halako batean, arbela huts bat dudala aldamenean, proposatu diot entzule bati egin dezan arrasto bat. Nire zeregina izango da, arrastoa kontuan hartuta, ipuin bat aukeratu eta kontatzea. Jendearekin errepikatu esaldi batzuk, eta ekin diot kontaktari, Jaimek proposatutako jolas batzuk sartu ditut entzuleen konpainian, baita Juan Kruzek esandako hitz batzuk ere, zeinak jostailu bihurtu ditugun.

Bukatzeko, entzule batek egin du beste arrasto bat arbelean, eta arrastoari esker, erabaki dut zein ipuinekin bukatu. Nik argitaratutako ipuin bat izango da: *gure hiztegi magikoa*.

Azkenik, *performancearen* hasierako egoerara itzulita, kantatzen eta dantzatzen bukatu dugu elkarrekin.

## **ONDORIOA**

Eramandako materialetatik ez dut ezta laurdena ere erabili. Gogoan neuzkan jolas batzuk sartzea, baina ez ditut sartu. Buruan neuzkan ipuin batzuk ere ez. Momentuan erabaki behar izan dut zeintzuk baztertu eta zeintzuk indartu, giroaren arabera, ERRITMOA gidari dudala. Jolasak horixe dauka. Benetan jolasten ari zarenean, zu ez zara partaide bakar. Denak gara partaide, baita objektuak ere.

Eta oro har, esan behar dut, ederki jolastu dugula. Entzule batzuk, gainera, hunkitu egin dira, oso momentu lirikoak sortu dira-eta; beste batzuk harritu. Ni ere

harrituta nago momentuarekin. Oso ederra izan da. Gauza gehienak era inkontzientean sortu dira, (benetako jolasak horixe dauka!). Horretarako, arrazoiaren alderdia kanpoan utzi behar izan dut; aldiz, inkontzientea eta intuizioa aktibatu.

Batzuetan, inkontzientea aktibatzen denean, ustekabeko gauzak gertatzen dira, guztiz magikoak; hainbestearino, non denak senti gaitezke partaide, errito kolektibo bat inauguratu bagenu bezala. Hori gertatzen den bakoitzean, bedeinkatua sentitzen gara denok, *performancean* gertatu den bezala. Kreatzioaren erdian, gainontzeko kreaturen ukitua sentitzen dugu, eta ukitua bezainbat hunkitua sentitzen. Eta hori izugarri ederra. Mirari baten parekoa.

### **JOLASTEKO ARRAZIOIAK**

Jolasteko ez dago arrazoirik. Jolasa berez da bide, da bitarteko, eta da helburu. Dena den, jolasten arituz gero, konturatzen naiz eragin zuzena duela komunikazioan. Zeren:

- 1.- Ipuinaren momentuko hoztasuna balio du desblokeatzeko.
- 2.- Entzuleak sumatzen dira hurbilago, konfiantzazko giro lasaian.
- 3.-Entzuleak erneago daude. Zeren, jolasean ez da bakarrik kontalaria partaide, entzuleak ere partaide dira jolasean.
- 4.-Hainbeste partaide, non errito kolektibo berria inauguratzeko balio duen.
- 5.-Arau estuak ditu jolasak, baina, aldi berean, askatasun gehiago eskaintzen du inprobisaziorako, eta ustekabeak sortzeko.
- 6.-Inkontzientea indartzeko balio du, eta bisio osoagoa izateko. Horri esker, logikaz harantzago joan daiteke kontalaria eta esnarazi inkontzientean dauden irudiak, poeta baten gisa.
- 7.-Orain aldira eramateko balio du jolasak eta, nahiz eta lehen aldian aritu kontatzen, badirudi, aspaldiko kontu zaharrak gertatzen direla oraintxe bertan berriro, orain eta hemen.
- 8.-Egoera dramatikoak areago marka daitezke, eta emozioak hobetu kudeatu, sakonezko isiltasuna barne, distantzia eta umorea lagun. Horrela, errazago sor daiteke enpatiazko egoera komunikagarria.
- 9.- Loturak egin daitezke era biziagoan, ipuin batetik bestera.
- 10.-Entzuleak mantendu daitezke zentratuago.

## **AZKEN HIZAK**

Ondo jolastu nahi badugu elkarrekin, ezinbestekoa da sakonezko entzuketa praktikatzea; entzuketa praktikatzea ez ezik, baita momentuko erritmora abandonatzera ere, esan nahi da KONTAKETAREN ERRITMOARI eustea, haria galdu gabe. Zeren, *performancean* irentsia izan nahi ez badugu, erritmoa mantentzea funtsezkoa baita. Horrek, umiltasuna eta hauskortasuna praktikatzea eskatzen du. .

Oiartzunen, 2013ko uztailaren 8an